Eta orain horrela eskaintzen omen dute. Eta hala ere ba iñor ez du nahi etorri orduan, esaten ai zaizkigunez, egin ahal guztian ai dia, hau konpontze aldera. Oain badakigu udara datorrela opor pila bat, o jendeak oporrak hartuko dituztela ala esaten dietelako hobeto dala udan hartzie oporrak. Ta bueno hor hutsune batzuk egongo dira. Baita ere zailtasunak egongo dia astian hiru lau egunetan etortzen ari dian bi mediku, bat Zarauzkoa eta bestia Donostikua, etorri ahal izateko, beraien zentroetan ere jendeak oporrak hartuko dituelako eta haiek kubrituta eon beharko dutelako hango hango plazak ere, ordun, ba bai, zailtasunak daude eta, baino gaur-gaurkoz azalpen hori eman digute, eta plaza danak atera dituztela.

Ni besterik ez.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko. Eztakit baiezkoa bozkatuko duzuen, baina bueno ja ke komentatu dezuen Gotzone Sagarduiren erantzuna, ba bueno hortikan hasiko nintzake.

Guk publikatu zan informazioa, helarazi genien Osakidetzaren erantzuna ba mozioa aurkeztu zuten medikuai eta zan anbulatorioko arduradunai eta berak erantzun zidan nei esanez hori etzala ala, baizik eta plaza bat gehio dala aterako litzatekeena baino hori, nik ikusten dut badakala pisan baino, baina bueno ez dela garrantzitsuena, azken finean.

Aurreko plenoan esan nuen bezala, egiturazko gabeziak daude Osakidetzan, eta goizean bilera bat euki det lehendabizi gauza bat konpontzeko onartu behar dala arazo bat daola bestela, arazoak ezin daitezke konpondu. Zorionez badirudi orain arazo bat daola Osakidetzan eta konpondu behar dela. Orain arten entzun duguna



da arazorik ez zeola ta dana ondo zebilela eta besteekin konparatuz askoz hobeto geundela. Orain behintzat badakigu arazo bat dagoela eta konpondu egin behar dugula.

Aurrerapausoa bada, horretarako gu prest eskua esku bat botatzeko.

Hori esanda, nik usten det hau ezatala pertsona batzuk beste toki batea jun dialako, sortu den arazoan ondorioa

sortu den arazoan ondorioa baizik eta hau da, aspalditikan lehen arretan dauden gabeziak ez dialako estaldu eta honen erantzule da azken finean kontratazio politika eraman dan, aurrera eraman den kontratazio politika. Azken finean, urtietan opeetan ez dira atea plaza dexente eta horietakoak gehienbat ez dira atea lehen arretakoak, atencion primariokoak eta horren ondorio gaude gauden bezala.

Baina bueno hori anbulategiko erantzunaren ondoren. Dena den, ondo iruitze zait zuek in zuek informazio hori edukitzea baino. Bueno bokete galdetzen diogunean udala bezala ez digute helarazten Osakidetzatik informaziorik, baina bueno behintzat norbaitei helarazten diete informazio hori.

zuek informazio hori eukitzea baino guk galdetzen dugunean informazioa Udala bezala ez digute helarazten informazioa, baino behintzat norbaiti helarazten diete informazio hori.

Bai Hala da.

Hala da eh. Zeinei? zeatikan gero ikusten det sartzen zatela beste eztabaida batzuetan, da esaten duzue beste instituzioekin eztabaidatzeko edo adostasunea ailegatzeko gaitasun falta.

Kontxo, udalak instituzio bezala eskatzen du beste instituzio batzuei bilera bat eta emateko bilera bat, zortzi hilabete tardatzen dute eta zuek astelehenean deitu eta asteazkenian Osakidetzako lau persona hemen anbulategian. Orduan, instituzioak nola kudeatzen dia beharren arabera, beste instituzioekin leialtasun instituzional hori mantenduz edo alderdikeriaz kudeatzen dira.

Kudeatzen dira alderdikeriaz. Orduan, arrebatu deitzen dezue arazo baten aurrean eta etortzen dira hona eta guazten gauzak argi esatea zer esan zuten etorri zian lau pertsonak, zer esan zuten?

Hori esplikatuz dizue beaiek edo anbulategikoak esplikatuz dizue, esan zuten alde batetik gerenteak esan zuena zen ez zuela ulertzen zeatikan Zumaitik jendea juten zan geneukan herri politarekin tal kual holaxen esan zuten bilera hartan, nola leike Zumaitikan medikua jutia hain herri polita edukita, zer egiten duzue jendea hemendikan juteko, ze itten deun., atera plaza lehendabizi, eta gero erizaintzako arduradunak, esan zanian arratsalde ez zegoela medikuikan, baizik eta zeudela bakarrikan erizainak eta hori arazo bat zela, erantzuna izan zan aspalditikan beste toki batzutan, kasu hontan PAC-etan mediku ez dago eta ez da ezer pasatzen.

Gero eztabaidatuko dugun gai honetan, hortxen dao arazua. Mediko faltak beste batzuk kubritzen dute eta ez da arazorik ikusten. Ba bai, arazo bat dago.

Arazoa badago eta hori da argi geratu behar dana.

Bueno, honekin bukatuta, PAC-ai buruz. bueno, ezer baino lehen aipatutko deu zer dan PAC-a eta zertarako erabiltzen den PAC-a,





Eta azken finean, komentatu dan bezala, PACa edo etengabe arreta gunea, osasun zentroko ordutegitik kanpo edo jai egunetan bizi larrialdiak ez diren egoerak artatzeko dituzten zentroak dira.

Guri dagokigu Zarauzko zentroa eta ezin besteak dira lehen arreta herritarrei, herrietako anbulategikin batera. Beraz, hori da lehen arretako sistema. Hemen lehen arreta anbulategian eta gero larrialdietara ez juteko PACak.

Bueno, gai honekin esan behar det, bueno, gutxienez 2011tik lan du gabeko eztabaida badago

Eztabaida bat dala, ez dala gaur eguneko kontu bat, baizik eta gutxienez 2011tik datorren kontu bat dela.

Eta oso argi daukagu Euskal Jaurlaritzak PACekin ez dakiela zer egin edo okerrago itxi nahi dituztela . Pandemia arte saiakera desberdinak egin dira etenik gabeko arretaguneak ixteko, batzuk itxi ahal izan dituzte edo ordutegia murriztu eta besteak herritarren mobilizazioei esker irekita mantendu dira edo murrizketa hori gutxitu egin da.

Pandemia etorri zanian, PACen inguruan antolatu zana zan zirkuitu garbia eta zirkuito zikina, protokolua eta hori erabili zuten PAC batzuk ixteko eta beste batzutan indarrak ipintzeko zentralizatzeko. Egoera hori gainditu zanian, pandemia ostean ikusten ari gea beraiei dagozkien funtzioak kentzen ari direla. Adibidez, argia da Zarauzko PACean buruzko gaurko mozioa horren eredu. Azken finean eiten dana da PACetan medikua kendu, funtzioak murriztu eta azkenik itxi.

Diogunaren beste adierazle bat da urteetan errefortzu kontratuak bultzatu direla PACetan lan egiteko eta errefortzu kontratuekin autokonzertazioaz abusatu egin dela eta horrek ekarri du PACeko plantillaren infradimensionamendu bat.

Planifikazio gabezi honek plantilla gutxitzera eramán du. Ikusten dugu ere, nahiz eta gabeziak izan, bertan geratu nahi izan duten profesionali eskaintzen zaien kontratuak oso prekarioak izan direla. Adibidez, hilabeteko kontratua eskaini izan zaie eta beste postu batzuetan kontratuak eskaintzen dietenean, ba normalena da beste toki batzuetara jua.

Nik usteet oso argi daola hemen honen ardura non dauden eta PACekin zer egin nahi den.

Bukatzeke esan nahi det PACak direla zerbitzu merkeena eta eraginkorrenak, ospitaleko larrialdiak, ez saturatzeko eta herrietako anbulatoriokin batera lehen arreta sendo bat edukitzeko.

Momentu honetan. Beraz, herriko anbulategiko egoera jasanezina izateaz gain, Zarauzko PACaren egoera ere gainbeheran dago.

Herritarrok kalitatezko osasungintza publikoa merezi dugu eta eskatzen dugu arazo hauei lehenbailehen irtenbidea ematea.

Horrekin batera, gure ustez ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak Osakidetzaaren egoera goitik behera konpontzeko neurriak urgentziaz hatzea.

Eta noski aurkezten den mozioarekin erabat ados gaude.

Zerbait komentatzeko?

XABIER ODRIOZOLA: Nik esateko beti egon dela gerentea diozun pertsonal hori, bai, guri entzuteko eta bai zuei entzuteko edo PSEri horrela esan zigun guri PACak



ixtearena esan digute ez dela horrela. Oseake zure iritzia eta nire iritzian arteko ezberdintasun larri bat dago

Medikuak falta direla badakigu eta medikuak lorpenen artean normalean dermatologia hartzen dute eta abar eta abar eta bukaera bukaeran geratzen direnak familia medikuak izan ohi dira.

Eta hori ministeriotik datorren kopuru bat izan da beti.

Eta hori handitzea ere askotan eskatu dugu.

Mediku faltak arazo bat du eta hor ikusten ari gara. Eusko Jaurlaritzan zuek diozuen bezala, saiatzen ari da organigrama ahalik eta hobekien egiten eta horretan ari da lan. Eta Zumaian ere esan digute behin eta berriz saiatuko direla dagoen arazoa hobetzen ari direla eta urtearen bukaerarako uste dutela jendeak hartuko dituela postu horiek eta saiakera hori lortuko dela, soluzio ematea.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Xabier, eztakit, ze iritzi ezberdin dakaun PACai buruz, medikuak daude, ez daude?

XABIER ODRIOZOLA: Esaten dizut, ez dela hori horrela, ez dituztela nahi itxi. Hori da ezberdintasuna.

IÑAKI OSTOLAZA: Ados, bueno gure ustez zentzu guztia daude ba mediko faltagatikan eta aipatu ditudan gauza guztietatik PACaren eredia ez dihoala beaien planetan eta gustatuko litzaiguke ba bai eotia, bai lehenengo arreta indartzea eta lehenengo arretan barruan PACa dago. Beraz, gure bozka hori izango da.

Adierazpenen ondoren alkateak bozka eskatu du.

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

-Eusko Jaurlaritzari eskatzea larrialdiko 3 estamentuak une oro mantentzeko: familia medikuntza, erizaintza eta administrazioa

-Eusko Jaurlaritzari eskatzea EAG ez inoiz ixteko, hau da, astelehenetik ostiralera 17.00etatik 08:00etara, eta asteburu eta jai egunetan 09:00etatik 09:00etara (24 ordu) mantentzea.

-Eskaera hauek Eusko Jaurlaritzako osasun sailari helaraztea.



#### **4.2.- EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO PORTUETAN ONTZIEN AMARRALEKUAK EMATEKO PROZEDURA ETA HORIEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI BURUZKOA, EH BILDUK AURKEZTUTAKOA.**

Alkateak azldu du lehendabizi aurkeztutako mozioa bozkatuko dela eta ondoren EAJ-PNVk aurkeztutakoa eztabaidatu edo ez bozkatuko dela, gai berdina izanik gai ordenean aurreratuko duela.

IÑAKI OSTOLAZA: "Lehendabiziko gauza da, bere momentuan bialdu zidaten EAJk bere mozioa ea aterako gendun elkarrekin besteen partez. Nik eztaikit horren berri dakazun zuk edo ez. Bueno nik esan nion momentu horretan erantzun halaxen izan zen, eskatzeko Jaurlaritzari jarraitzeko orain bezain ondo ba hortako mozioa ez daukala zentzurik eta mozio baldin bado horreatikan dala ez ba, orain arteko gauzak ez direla ondo egin eta eskatzen dela hobetzeko edo beste trato batekin egiteko, mantendu egiten gendula mozioa. Orduan, ekarri dugu amarristen mozioa gure izenean, etzenuten erantzun elkarrekin nahi zenuten edo ez. Eta orduan ekartzen dugu. Egingo duguna da irakurri edo aipatu zer eskatzen den, bakoitzak nahi duena esan dezala eta bozkatu eingo dugu eta bigarrenarekin ere bozkatuko dugu ea onartzen dugun edo ez. Onartzen baldin badugu, ba defenditzen du aurkezleak, besteak esaten dugu esan behar duguna eta bozkatzen dugu.

Hala da, Alex?

Bale.

Ondoren alkateak aurkeztutako mozioa irakurri du.

IÑAKI OSTOLAZA:

"Euskal Herriak lotura estua du itsasoarekin. Mendeetan zehar itsasoari begira eta itsasora emana bizi izan da. Harreman hau ez da ogibide baten sortze eta garapenera bakarrik mugatzen, aitzitik euskal gizarte osoaren bizimodua baldintzatu du, baita beste herrialde batzuekiko harremanak ere. Bestela esanda, euskaldunok aspaldidanik egin dugu itsasoa lantoki, baina itsasoari lotutako jarduera ez da inoiz sektore ekonomiko hutsa izatera mugatu. Balio kulturala izan da. Euskaldunon kultura –ondarearen gordailua. Eta portuek eta kaiek kultur transmisiorako espazio gisa bete duten funtzioa agerikoa da, hauetan iraun baitute itsas munduko tradizio eta ohiturek.

Azken urteotan ordea, agerikoa da euskal kostaldeko eta batez ere portuetako errealitatea erabat aldatu dela. Arrazoiak askotarikoak dira, baina haien artean dago kirol portuak eta kirol nabigazioa sustatzeko aurrera eraman den egitasmoa. Aisialdirako ontzi flota handia, gorantz doan eskaera amaigabea. Horrela, arrantza-portua izan ziren asko, kirol portu bihurtu dira, eta errealitatea aldatzearekin, arazo eta desoreka berriak sortu dira. Horren adibide garbia amarralekuen auzia da.

Ekonomiako Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko 5330 aginduak laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautu zituen, baita haren aplikazio-eremua ere,



baita haren aplikazio-eremua ere. Data horretatik aurrera, euskal kostaldeko hainbat portuetako amarralekuen emakida prozedurak ireki ziren, besteak beste, Plentzian edo Donostian.

2017ko urriaren 19ko aginduren helburua "arauz kanpoko" egoera bat erregularizatzea eta eguneratzea, eta amarralekuak erabiltzeko baimen prozedurak arautzea bazen ere, hura ezartzen hasteak kezka eta ezinegona sortu zuen kostaldeko herri guztietan. Horren adibide dira abian jarritako salaketa judizialak, hala nola Euskadiko Kirol portuaren zuzendarien aurka Donostiako Epaitegiak, 2022ko urriaren 29an onartutako kereila, edo toki-erakundeek herritarren aldetik jaso dituzten esku-hartze eta laguntza eskaera ugariak.

Kezka eta ezinegon hori gehienbat amarralekuak esleitzeko 5330 aginduaren 14. artikuluan ezarritako esleipen irizpideek eragin zuten. Zuzenago esanda, irizpideen zehaztugabetasunak eta horiek behar ez bezala aplikatzeak. Aipatu artikulua araberak, amarralekuak esleitzeko "aintzat hartuko dira ontziaren neurri zehatzak, (luzera, zabalera eta sakonera) eskainitako amarralekuekin alderatzeko"; gainera, "lehentasuna emango zaie amarralekua eskatzeko unean ontzia baduten eskatzaileei eta amarralekuko neurrietara hobekien egokitzen diren ontziei, betiere ontziren luzerak eta zabaletak aukera ematen badute atrakatzen maniobra egokiak egiteko"; eta eskatzaileen artean "berdinketa egonez gero, notario aurrean zozketa egingo da". Bada, agindua ezarri den portuetako amarratzaileak salatu dutenez, oinarrietan jaso gabeko irizpideak aplikatu dira, plazarik gabe geratu diren ontziek baino aprobetxamendu hobea ez duten plazak esleitu dira, edo berdinketa egoera batzuk ez dira notarioaren aurrean ebatzi.

Irregularitasun horiek guztiek ondorio judizialak izan dituzte, 2023ko otsailean, Gasteizko Administrazioarekiko auzien 1 zenbakiko epaitegiak bertan behera utzi zuen EKP erakundeak 2021ean Donostiako kaian egindako amarralekuen banaketa. Eta, 2023ko apirilean Bilboko Administrazioarekiko auzien 2 zenbakiko epaitegiak baliogabetu egin zuen Plentziako amarralekuen deialdia ebatzen zuen erabakia.

Bestalde, aginduak ez du antzinasuna irizpidetzat hartzen eta, beraz, ez ditu babesten portuek historikoki bete duten funtzioa, funtzio sozialaren jarraipena bermatzen duten babesten historikoki bete duten funtzio sozialaren jarraipena bermatzen duten erabiltzaileak, hala nola, erretiroa hartu ondoren plaza bat ziurtatua zuten arrantzaleak.

Amarralekuak harritzeko prozesuak euskal portuetan sortutako gatazka arau berria egin aurreko elkarrizketaren bidez saihestu zitekeen. Eta horixe da, hain zuzen ere, amarratzaileen elkarteek eskatzen dutena, elkarrizketa. Esan bezala, gure portuen errealitatea aldatu egin da eta gaur egun inor gutxik ezagutzen du portuetako egoera amarratzaileek beraiek baino hobeto, gehienak eguneroko erabiltzaileak baitira. Elkarte horietako askok ibilbide luzea dute portuen kudeaketan, hainbatetan amarralekuak ere kudeatu dituztelarik. Hala ere, arau berria osatzeko prozesuan ez dira aintzat hartuak izan.



Hori guztia kontuan hartuta, ZUMAIako udalbatzak ondorengo eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

1.- 2017ko urriaren 19ko 5330 agindua berrikusi eta egokitzeko izapideak martxan jartzea, sortu den gatazkaren iturburuan dauden irizpideak zuzenduz.

2.- Abian dauden edo aurreikusiak dauden amarralekuen esleipen prozesuak behin-behinean gelditzea eta kalte-dunekin, hots, amarratzaileen elkarteekin elkarrizketa hastea egoera bideratzeko.

3.- 2017ko urriaren 19ko 5330 agindua berrikusteko prozesua gardentasunean eta partaidetzan oinarritzea eta kirolportuak kokatzen diren udalerriekin elkarlanean garatzea, horretarako, tokian tokiko Portuko Udal Batzordeak sortuz, ekainaren 28ko 2/2018 Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren legearen I. kapituluko 4. artikuluan xehatuta dagoen bezala,

4.- 2017ko urriaren 19ko 5330 agindua egokitzeko lanketan honako irizpideak aintzat hartzea.:

- Herri eta portu bakoitzaren egoera desberdina da, eta, beraz, arauak tokian tokiko errealitatea aintzat hartu eta horretara egokitzeko aukera eskaini behar du, betiere herrien eta herritarren artean bereizketarik sortzen ez bada.
- Amarralekuak esleitzeko prozeduran antzintasuna irizpide bat izatea eta itsas kostaldeko ondare materiala eta inmateriala berreskuratzen edo kontserbatzen duten ontziei lehentasuna ematea.

5.- Mozio Honen onarpena Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio.

INAKI OSTOLAZA: Gure partetik, ekarri dugunez ados gaude mozioarekin eta baiezkoa bozkatuko dugu.

Norbaitek komentatu nahi baldin badu?  
Zure hitza da.

AINHOA ILLARRAMENDI: Bueno ekarri diguzu. En mozio hau, "dejà-vu" bat da gertaera errepikatua, izan ere, 2022ko maiatzean, EH bilduk kostaldeko hainbat udaletan edo hainbat udalen, (kasu hartan, Zumaian ez), antzeko mozio bat eraman zuen, baita legebiltzarrerara ere, legez besteko proposamen gisa.

Dagoeneko izapidetuta dagoen mozio baten errepika da, eta mozio haren edukiak lantzen ari dira, mozio hori aurkezten duten elkarteek dakiten bezala; izan ere, behin eta berriz hala azaldu izan diete administrazioaren aldetik egin ohi dituzten koordinazio bilera askotan.



Mozio honetan egiten den eskaeraren bati dilazio asmo susmagarri samarra, antzematen diogu eta beste batzuk nekez gauzatu edo bete daitezkeen eskariak dira.

Beraz, ezin dugu mozioa aurkeztu den bezala onartu.

Hau azalduta,

- Bat gatoz erabiltzaileen kezkarekin, aisialdirako ontzientzako amarralekuen eskaria gero eta handiagoa delako.

Hala ere, jakin badakigu araudia aldatzeak ez duela arazoa konponduko, benetako arazoa, izatekotan, amarralekuen eskariaren eta eskaintzaren arteko desorekari baitagokio. Izan ere, gurea bezalako herrialde batean, dituen orografia eta itsas baldintzak izanik, kasu batzuetan, nahiko zaila da desoreka hori konpontzea. Hala ere, badakigu ahalegin hori ere egiten ari dela.

Baliteke batzuk erosoago sentitzea esleipena algoritmo batek egin beharrean zozketa batek egitea, edo nahiago izatea oinarrietan norberarena den baldintza bati edo norberarena den zerbaiti lehentasuna ematea...baina, ez gaitzen engaina, eskaerak eskaintza hirukoiztu egiten duenean, eztabaida izan den bi portu bakarretan gertatu den bezala, hirutik bi plazarik gabe geratuko dira aurrerantzean ere, eta deialdien araudia edo oinarriak "txarrak" izango dira, berriro ere, kanpoan geratzen direnentzat; eta bizi dugun politika edo administrazio judizializatzeko giro batean, prozedurak judizializatzerantz eramango gaitu aurrerantzean ere.

- Era berean, bat gatoz araudia berrikusteko beharrarekin, araudia hobetu eta errealitate berrira egokitzeko beharrarekin, alegia. Baina ez horretarako mozioan ezartzen diren irizpideekin. Araudiak legezkoa izateaz gain, eginkaria izan behar duelako.

Eta horregatik aurkezten dugu beste mozioa.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Ainhoa. Zuk zerbait komentatzeko?

DUÑIKE AGIRREZABALAGA: Alderdi sozialistak babestu egingo duela aurkeztu dan mozioa. Momentu hontan ere Hondarribiko plenoan eztabaida berdina dake eta gogoratu egin beharko dugu akaso, 2022an Hondarribin ere alderdi sozialistak gelditu in intzula amarreen zozketa o adjudikazioak. Ba eskatu zulako behintzat herri portuko konseiluak lortu arte edo egin arte, ba ez aurrera segitzeko eta gelditu egin zen. Eta Hondarribikoa momentu hontan geldituta daude eta ez gaude adjudikazioak egiten amarre berdinarekin. Egia da, arazo ba dala ba amarratzeko leku gutxi, txikia gelditzen diala gure kirol portuak. Eta hori akaso ba beste eztabaida bat izango da.



Eta demandak eta ohiturak eta egia da historikoa, histori bat eduki izan deu baino momentu hontan kirol portuak ez daka zerikusirik antzinan ez zirelako. Aurkeztu den mozioarekin, bueno ba gure erreserbak ere baditugu.

Ez dugu esango aurkeztu diran gauza danakin ados gaudela, baino bai egia da ba ez dagoela inor kontentu nola dagoen. Egia dala epaitegietan dagoela momentu honetan gai hau, bai Donostian azaldu zalako ta aurretik beste leku batzuetan baino konpondu ezin izan due ba pixkat gehio sartu edo atzera jun dialako beste batzuk eta moldaketak egin direlako. Ba portuz portu ez baiño guretzako eta Zumaiko alderdi sozialistak eskatzen deuna da zenbat eta azkarro Zumaiako portuko herri batzorde bat sortzea. Eta denon artean eta ez zumaiarrak bakarrik, baita ere Euskadin dauden kirol portu guztiak gara arau honetan ba lantzea eta danon artean bilatzen ba benetako, badakigu azkenean denon gustokua ez da izango. Baino egia da ba badaudela nik uste det berezi batzutak eta egin dana oin arte ez dala ere oso ondo egin. Zalantza handiak utzi ditu mahai gainean. Eta nik uste det bueno momentu hontan aurrera begira behintzat hori izando zela lehenengo pasoa, araudi hori aldatzea.

Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko.

Ondoren alkateak bozka eskatu du.

**Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 6 boto (6 EAJ-PNV)**

**Abstentzioak:**

**ERABAKIA:**

1.- 2017ko urriaren 19ko 5330 agindua berrikusi eta egokitzeko izapideak martxan jartzea, sortu den gatazkaren iturburuan dauden irizpideak zuzenduz.

2.- Abian dauden edo aurreikusiak dauden amarralekuen esleipen prozesuak behin-behinean gelditzea eta kaltetunekin, hots, amarratzaileen elkarteekin elkarrizketa hastea egoera bideratzeko.

3.- 2017ko urriaren 19ko 5330 agindua berrikusteko prozesua gardentasunean eta partaidetzan oinarritzea eta kirolportuak kokatzen diren udalerriekin elkarlanean garatzea, horretarako, tokian tokiko Portuko Udal Batzordeak sortuz, ekainaren 28ko 2/2018 Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren legearen I. kapituluko 4. artikuluan xehatuta dagoen bezala,

4.- 2017ko urriaren 19ko 5330 agindua egokitzeko lanketan honako irizpideak aintzat hartzea.:



- Herri eta portu bakoitzaren egoera desberdina da, eta, beraz, arauak tokian tokiko errealitatea aintzat hartu eta horretara egokitzeko aukera eskaini behar du, betiere herrien eta herritarren artean bereizketarik sortzen ez bada.
- Amarralekuak esleitzeko prozeduran antzintasuna irizpide bat izatea eta itsas kostaldeko ondare materiala eta inmateriale berreskuratzen edo kontserbatzen duten ontziei lehentasuna ematea.

5.- Mozio Honen onarpena Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio.

Alkateak bozka eskatu du, onartzen den edo ez EAJ\_PNVk aurkeztutako mozioa eztabaidatzea.

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

Alkateak hitza eman die EAJ taldekoei mozioaren defentsa egiteko.

Ondoren Ainhoa Illarramendik irakurri du aurkeztutako mozioa.



Euskadiko portu-tradizio luze eta finkatuak eragin ekonomiko eta sozial handia izan du gure kostaldeko herrien garapenean, arrantza-, merkataritza- eta industria-sektoreen bultzadari esker; eta, horrekin batera, Euskadiko aisialdiko jarduera nautikoaren hazkundeari eta euskal kostaldearen garapen turistikoari esker.

Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela portuen arloan, betiere interes orokorreko zat sailkatuta ez badaude.

Horren arabera, Eusko Jaurlaritzak urte asko daramatza arlo hori behar bezala kudeatzen, eta agerian daude emaitzak.

Duela hogeita urte, aisialdiko nautikari dagokionez, Garraio eta Herri Lan sailburuaren





2004ko apirilaren 20ko Agindua eman zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetan eta portu-instalazioetan profesional ez diren aisia-ontzien titularrei amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzen duena, arauz kanpokoko egoera bat erregularizatzeko.

Hala ere, agindu hori aplikatu zenetik hamarkada bat baino gehiago igaro zenean, araua eguneratu beharra zegoela ikusi zen, kirol-portuetako egoera berrietara egokitzeko. Horregatik, arau-xedapen berri bat eman zen, amarralekuak emateko prozedura arautzen duena; AGINDUA, 2017ko urriaren 19koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailburuarena, laketontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedura eta araubidea arautzen dituena. Xedapen horrek, egin eta onartzeko, lege ezarritako izapide guztiak jarraitu zituen, informazio publikoa eta alegazioen izapidea barne.

Ildo horretan, 2018. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legea onartu zen, eta lege horren arau-garapenean aurrera egin da azken legegintzaldi honetan. **Lege horretan, besteak beste, Portuko Udal Kontseiluak sortu dira, eta horien izapidea azken fasean dago, behin betiko onartzeke eta aldizkarian argitaratzeke; beraz, laster gauzatuko dira.**

Agindu hori aplikatu zenetik zazpi urte igaro dira, eta aisialdiko nautikak azken urteotan izan duen bilakaera azkarra ikusita (ondorioz, arazo eta errealitate berriak agertu dira), **egiaztatzen da araua eguneratu beharra dagoela, egoera berrietara egokitzeko.**

Hala adierazi du Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldian, eta badakigu **egokitzapen hori izapidetzen ari dela.**

Horregatik;

- 1.- Aitortzen dugu Euskadiren bilakaera ekonomiko, sozial eta politikoaren zati handi batek lotura estua duela merkataritza-, industria- eta arrantza-jarduerekin; izan ere, portuetan jarduera horiek garatzeko beharrezko azpiegiturek dituzte. Baita kirolei eta aisialdiko jarduera nautikoei dagozkien aisialdiko jarduerak ere.
- 2.- Aitortzen dugu gure herriaren eta udalerrien bilakaera sozioekonomikoak herritarren ohiturak, beharrak eta eskaerak aldatu dituela. Aldaketa horiek direla eta, etengabe berikusi eta egokitu behar dira araudiak, ordenantzak, dekretuak edo edozein motatako administrazio-prozedurak; portu-sektorea ere egokitu behar da.
- 3.- Eusko Jaurlaritza berriari eskatzen diogu jarrai dezala, aurreko legealdian hasitako ildotik, aisialdiko nautikari aplikatu beharreko araudia eguneratuz,



gaur egun kirol-portuetan dauden egoeretara egokitzeko.

Erregelamendu berriak oinarri juridikoak ezartzen ditu portuak herrialdeko garapen sozioekonomikorako elementu gisa kudeatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legeak ezartzen dituen jasangarritasunaren, elkartasunaren, baliokidetasunaren, konkurrentzia askearen, kudeaketa integratuaren eta irisgarritasunaren printzipioekin bat etoriz, instalazioen erabilera multifuntzionala, ingurunearen errealitate sozioekonomikoa eta aktibo publikoen arrazoizko errentagarritasuna kontuan hartuta, eta azken urteotako esperientziak eman duen kasuistika guztiari irtenbidea emateko.

- 4.- Eskatzen diogu Eusko Jaurlaritza berriari jarrai dezala kirol-portuen kudeaketa etengabe hobetzeko konpromisoarekin eta konpromiso horrekin, portu-sektorean inplikaturik dauden sektore ekonomiko, profesional eta sozialekiko partaidetza indartzen jarrai dezan.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Ainhoa.

Duñike, zerbait komentatzeko?

DUÑIKE AGIRREZABALAGA: Bai, bueno yo creo que la diferencia que hay entre las dos mociones en la de antes y en la de ahora es que en una se pide que se paralice provisionalmente por lo menos la, que se sigan adjudicando los nuevos puestos de amarre y en la otra pues en la otra no se hace mención a esa situación entonces lo que se quiere es que se continúe.

Para nosotras como ya he dicho en relación a la moción anterior es muy importante la creación del consejo municipal de puertos y esperamos que eso salga cuanto antes y a partir de ahí entre todos los consejos de puertos municipales podamos hablar de la nueva reglamentación y lo que pueda ser el futuro de todos los puertos deportivos de Euskadi.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Duñike.

DUÑIKE AGIRREZABALAGA: Ahaztu egin zait esatea abstenitu egingo naizela.

IÑAKI OSTOLAZA: Nik bi zertzelada soilik. Alde batetik, zuen mozioan, hemen aipatzen den moduan, lege horretan, 2/18ko legean, besteak beste, portuko udal-kontseiluak sortu dira eta horien izapidea azken fasean dago, behin betiko onartzeke eta aldizkarian argitaratze. Beraz, laster gauzatuko dira.

Ondo da. Pozten naiz. Bazen ordua. Eta gainera ba bueno eh informazio hori eukitzea oso ondo dago, zeren uain dala 2022ko otsailean deitu zitzaigun portu kirol-portua dakagun udal guztiori Jaurlaritzara, Lakuara bilera batea, Aitor Etxebarriak



deitu ziun eta gai bakarra zen portuko udal kontseilua sortzea. Eta horretarako jakin naizun zein zen gure iritzia, alkate ezberdinen iritzia.

Han alkate denak bere iritzia eman gendun eta beraiek hartu zuten nota eta esan zuten, ondo zela jarraituko zutela tramiteekin eta bueltatuko zigutela ba ze pauso gehiago eman nahi izan edo ez. Bueno orduz geroztikan ia urte eta erdi pasa da eta dakaten lehendabiziko albistea da ba Zumaiko EAJko udal taldeak helarazitakoa. Berriro ere ba gustatuko zitzaidan ba hori, informazio hori jasotzia kirol portu agintaritzako zuzendarien partetik, azken finean hola hartu zuelako konpromisoa.

Baina bueno martxan ipintzen baldin bada, ondo dago. Eta bueno azkenik esan ba bueno hor aipatzen duzuen esaldia da horren arabera aipatzen dezun guztiak Euskal jaurlaritzak urte asko daramatza arlo hori behar bezala kudeatzen eta agerian daude emaitzez. Hori defenditzen duen mozio bat ezin dugu onartu, zeren bestela beste mozioak ez luke zentzurik izango, hori zan esan nizuna ta horreatikan ez dugu babestuko zuen mozia, zeren hobetzeko gauza asko daudelako.

Hori da lehenengo mozioaren arrazoiak. Ta bueno besterik gabe.

Zzuk bai esan:

XABIER ODRIOZOLA: Mozioak pixka bat ikusaz edo esango nuke Duñikeri portuko udal batzordea egitearen alde guztiz gaudela, hori dudaik ez daukagula. Baina EH Bilduk jarritako mozioan, adjudikazio batean antzintasun kriterioa.

IÑAKI OSTOLAZA: Barkatu Xabier, EH Bilduk ekarri du Zumaiko amarristen mozia honea,

XABIER ODRIOZOLA: Esan deten bezela EH Bilduk aurkeztu duenean badakit Pablok ekarri du bere taldearen izenean.

Kriterioa adjudikazio batean antzintasun kriterioa arrixku diskriminatorio bat euki dezake eta hor laugarren puntuan jartzen duen bezala, jartzen du herritarren artean berriz, bereizketarik sortzea ez dela helburua. Horrekin batera, hurrengo puntuan antzintasuna aipatzen du. Antzintasuna zuzenki diskriminatorioa ez da legez baino zeharka izan daiteke. Derrigorrez legea eskatzen duena da berdintasuna mantentzea adjudikazio baten aurrean.

Hortan daukagu nik uste dut, duda edo larritasun bakarra ba zuen edo aurkeztu den mozioaren aurrean.

Bestalde esan horrek esperantza faltsu bat sortu dezakeela herritar antzintasun hitz horren aurrean eta hori arriskutsua izan daitekeela. Eta garbi ikusi da Plentzia eta Donostia aipatzen zirela gehienbat. Zumaian daukagun portua aspaldi egin zan. Badakigu nola sortu zen protesta eta kritika ugarien gainetik. Eta ehun bat amarre edo ditu libre eta ez dago itxaron zerrendarik. Zumaian ez daukagu arazo hori. Bere garaian ein zan portu on edo hori bakoitzak erabakiko egin zanan arabera. Orduan, ba bueno iruditzen zaigu Zumaian egoera ona dela kasu hontan.



IÑAKI OSTOLAZA: Zumaian oraingoz ez da aplikatuko, 27tik aurrera aplikatuko da ZKPen dagoelako eta emakida daukalako Marina Urolak eta beak kudeatzen delakoa. Baina bueno besterik gabe, guk aurreko mozioan nik usten det aurreko mozioaren garrantzi handiena nik ematen diona zan behintzat elkarrizketarako deiarri, ez? Zeren zuek aurkezten duzuen mozioan aipatzen zenuten jarraitu dezala orain arte bezala, baina eske eh jarraitu dezala esan nahi du elkarrizketarik ez dela egon edo murrizta egon dala. Horreatikan mozioaren xedea.

XABIER ODRIOZOLA: Zuk diozun bezala, elkarrizketarik ez dela egon diozu ta nik ziurtatu dezaket elkarrizketa behin eta berriz egon ohi dela eta horretan dabiltzala denak akuerdo edo forma bat ematera adjudikazioak emateko. Herriz herri ahalik eta justuena izateaz eta herri bakoitzaren egoera oso ezberdina da. Donostiako edo Plentziako portuak oso txikiak dira eta anpliatzeko gaur egun ez dauka lekurik.

IÑAKI OSTOLAZA: Bai, erabat ados. Portu bakoitza oso diferentia da, Zumaiko kasua desberdina gainera, ZKP dao. Baina bueno azkenengo hiru urte hauetan aukera euki det EKPk in eztabaidatzeko 2/18 legea eta 2/20 dekretua martxan ipintzeko dala likidazioa eta eon dan elkarrizketa eredugarria baldin bada, ba ziurtatzen dizut ez dela egon elkarrizketarik, izan dala hay lentejas si quieres las tomas y si no las dejas.

Alkateak hitza eskaini dio Pablori, mozioa aurkeztu duen herritarrari.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Pablo. Nik gai honekin ñabardura bat zeatikanh 2022 ko otsailean euki gendun bileran Aitor Etxebarriakin behin eta berriz azpimarratu gendun portua daukagun alkateak, kasu honetan, garai hartan, baita ere Lekeitioko alkatea, EAJa ere iritzi berekoa zen, gehiena kezkatzen zigula Kontseilu hauetan zan ez geneukala erabakigarritasunik, legearen arabera dia konsultiboak eta ez daukagu eskumen bat bera ere soilikan urtian behin egingo den kontseilua bat entzuteko eta guk eskatzen genduna ekarpen gisa behintzat lotesleak izatia segun ze gaietan eta partehartze kontuan edukitzea portu inguruan dabiltzan eragile guztiak amarristak, kasu honetan Zumaian, Astillerua bueno kofradia, hemen eztao Getarira pasa zen kofradia ta bueno hori bai eskatzen du. Hoixen bakarrikan.

Ondoren alkateak bozka eskatu du.

**Aldeko botoak: 6 boto (6 EAJ-PNV )**

**Kontrako botoak: 9 boto (9 EH Bildu)**

**Abstentzioak: 1 boto (1 Euskal Sozialistak)**

**ERABAKIA:** Mozioa ez da onartua izan .



### 4.3.-LGTBI+ HARROTASUNAREN EGUNA, EH BILDU, EAJ-PNV ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE POLITIKOEN AURKEZTUTAKOA.

Alkateak hitza eman dio Maite Egañari, ondoren mozioa irakurri du.



#### LGTBI+ HARROTASUNAREN EGUNA

Ekainaren 28an, LGTBI+ harrotasunaren egunean, harro gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harro gaude gure bizitzek, harro gure genealogiaz eta harro LGTBI+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakera ezberdinek zein manipulazioak, eskuin muturreko diskurtso intoleranteak eta gorroto jarrerak cisheteroarautik kanpo kokatzen diren bizitzak ezabatu nahi dituzten honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da nondik gatozen gogora ekartzea, ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dugu. Eraso LGTBI+fobikoen salaketan datuak esponenzialki egin dute gora azken urteetan, LGTBI+ pertsonen inbizibilizazio eta bazterketak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara eta hori sustatzen jarraituko dugu, askoren artean eta elkarlanean.

Horregatik guztiagatik **Zumaiako Udalean** konpromisoa hartzen dugu, gure herriko LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko neurri eta politika zehatzak aplikatzeko, horretarako jada landuta dagoen Zumaiako LGTBI+ ekintza-planaren baitan. Lanketa hau, besteak beste, herriko LGTBI+ kolektiboko kideen parte hartzearekin egin zen eta honen bidez, herriko erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatze moduak ere sustatu nahi ditugu.

Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGTBI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen



Zumaia Udala

2024IAKU0008

dugulako.  
Gora Ekainaren 28a.

2024-06-27

Ondoren alkateak bozka eskatu du.

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

ERABAKIA: Mozioa onartua izan da.

## 5.- **ESKARI – GALDERAK**

Bukatu aurretik alkateak San Pedro festen inguruko ohar bat eta gonbidapena luzatu die udalbatzako kide guztieei.

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta bi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA  
[www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) • e-mail: [udala@zumaia.eus](mailto:udala@zumaia.eus)



EKS | CSV: **ESKU4182c18c-488c-457a-b583-5d57d11bccd6**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IAKU0008-197. akta/Acta 197 ()